



01 / BATZARRA / 2012

**BERASTEGIKO UDALAREN  
2012ko urtarrilaren 25eko EZOHIKO UDALBATZARREN AKTA**

*Berastegin, 2012ko urtarrilaren 25ean, 16:30k izanik Udaletxeko Areto Nagusian bildu dira, Aritz Mujika Saizar jauna alkatearen presidentziarekin.*

*Alkateordea:*

*Amaia Azkue Eizagirre Anderea.-*

*Zinegotziak:*

*Estibaliz Saralegi Labaien Anderea*

*Patxi Irisarri Aranalde Jauna*

*Ane Urkizu Lasarte Anderea*

*Mikel Beloki Urkizu Jauna*

*Leire Garaiburu Arcelus Anderea*

*Mirari Saizar Zinkunegi Anderea*

*Maialen Echeverria Masa Anderea*

*Bertan dago eta fede ematen du idazkari-kontuhartzaileak:*

*Maria Pilar Garmendia Miguel Anderea.*

*Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, presidentek, 16:30 ordu direnean, bilkura irekitzat ematen du eta gai-zerrendako puntuen azterketari ekiten da.-*

**LEHENENGO PUNTUA:**

**MOZIOA KUTXABANK-EKO ADMINISTRAZIOA KONTSEILUA BI INDAR POLITIKOEN ARTEAN SOILIK OSATZEA GAITZESTEKO.-**

*Alkateak mozioaren irakurketari ekiten dio, izanaz bere letraz letrazko edukia:*

*Gipuzkoako Kutxako Administrazio akordioaren ondoren (Akordio hauetan Kutxabank entitate berriaren ordezkartza berria erabaki zen. Ondorioz, Gipuzkoako Kutxari zegokion ordezkartza murrizketa etorri zen, gipuzkoar guztion ordezkartza murrizketa, alegia) Udal Batzarrak, ahobatez,*



**ERABAKI DU:**

1.- Hartutako erabakia gaitzestea, Administrazio Kontseilua bi indar politikoren artean bakarrik osatzearena, alegia, gainerako Alberdi politikoak bazterrean utziz. Horrela, erabaki hau hartu dutenek Kutxabank entitatea erabat kontrola dezakete modu baztertzailan.

2.- Kutxabank osatzeko lortu zen adostasun hura mantentzea eskatzea, hiru Kutxetako Biltzarretan oso babestuta izan zena. Adostasun horrek Euskal gizartearen eta bere errealitate instituzionalaren ordezkartza anitz, adierazgarri eta proportzionala bideratzen zuen, Kutxabank izan dadin gizartearen eta Herri honen zerbitzura egongo den entitate bat.

3.- Kutxabank entitate berrian Kutxak duen ordezkartza errespetatzea exijitzea, joan den iraileko Kutxen Biltzarretan adostu eta onartutako parametroetan. Beraz, ez onartzea Kutxaren, Gipuzkoaren eta gipuzkoarren kalterako izango den ordezkartza-murrizketa.

**BIGARREN PUNTUA:**


**UDALAK BEREZKOAK DITUEN ZUZENBIDE PUBLIKOKO SARRERAK BIDE EXEKUTIBOAN BILTZEKOARI BURUZKO HITZARMENA SINATZEKO PROPOSAMENA .-**

Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenak, 2.2 artikuluan xedatzen duenez, udal ogasunek zuzenbide publikoko sarrera gisa jaso behar dituzten tributu eta zenbatekoak kobratzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ogasunerako legez ezarrita dauden eskumen eta eskubideak izango dituzte eta, hala behar denean, dagozkien administrazio prozeduren arabera jardungo dute.

Halaber, aipatu Foru Arauak 8 artikuluan dio Udalak eta Foru Diputazioa lankidetzan arituko direla hitzarmen egokia izenpetuz tributuen kudeaketa, likidazio, ikuskapen eta bilketari dagozkien guztietan.

Bestalde, Gipuzkoako Zergabilketa Erregelamenduak jasotzen duenez, Ogasun eta Finantza Departamentuko organoek beste herri administrazio batzuen baliabideak biltzeko kudeaketa hartu dezakete beren gain, hitzarmenak formalizatuta eta horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta.

Araudi horren babesean, Diputatuen Kontseiluak 2004ko abuztuaren 30eko bileran erabaki zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta interesatuta dagoen udal bakoitzaren artean sinatu beharreko lankidetzatza hitzarmenaren eredia onartzea, hain zuzen, udalak berezkoak dituen zuzenbide



*publikoko sarrerek bide exekutiboan biltzeko.*

*Horrenbestez, aipatu hitzarmenaren edukia Udalarentzat interesgarritzat jotzen duenez, Udalak gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren,*

**ERABAKI DU:**

**LEHENIK.-** *Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2004ko abuztuaren 30ean onartutako lankidetzaren hitzarmena sinatzea. Hitzarmen horren bitartez, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartuko du Udalaren zuzenbide publikoko sarrerek bide exekutiboan biltzeko ardura.*

**BIGARRENA.-** *Alkate-lehendakariari ahalmena ematea aipatu hitzarmena Berastegiko Udalaren izenean eta ordezkartzan sina dezan.*

**HIRUGARRENA.-** *Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari erabaki honen berri ematea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez.*

**HIRUGARREN PUNTUA:**

**GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ESKUHARTZE ZENTRALIZATUKO SISTEMARI-FORU KONTRATAZIOEN ZENTRALARI ATXIKITZEKO PROPOSAMENA.-**

*Otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuz Gipuzkoako Foru Diputazioaren Foru Kontratazioen Zentrala sortu da, kontrataziorako laguntza organo bat izango dena, hain zuzen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki entitateetako kontratazio organoei laguntzeko, aipatu entitateak kontratazio sistema honi atxikitzen zaizkion neurrian.*

*Kontratazioen zentralak urriaren 30eko Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legearen 187 artikulua eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera erregulatzen dira.*

*Toki Administrazioaren eremuan, 188 artikuluan diputazioei kontratazio-zentralak sortzeko aukera ematen die, 189. artikuluan aurreikusten du udal erakundeak eta sektore publikoko beste entitate batzuk kontratazio sistema horietara atxiki daitezkeela, komeni diren akordio edo hitzarmenak eginda.*

*Zentralizaioaren helburua entitate publikoen kontratazio jardueran eraginkortasun handiagoa lortzea da: alde batetik, kudeaketaren ikuspuntutik, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko tramitazio administratiboa arintzen eta sinplifikatzen duelako; eta, beste aldetik, ekonomiaren ikuspuntutik, baldintza ekonomiko hobekiak lor daitezkeelako, eta, horri esker, gastu publikoa txikitu.*

*Atxikipen honek ez dakar berekin kontratazio guztiak Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez egin beharrik; Udal honen esku dago sistema hau ondasun, zerbitzu edo hornidura guztietarako edo batzuetarako bakarrik erabili erabakitzea.*



*Aurreko guztia ikusita, Udal batzarrak ahobatez*

**ERABAKITZEN DU:**

**LEHENIK:**

*Berastegiko udal hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuratze zentralizatuko sistemari-Foru Kontratazioen Zentralari atxikitzen da.*

**BIGARRENA:**

*Berastegiko udal hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuratze zentralizatuko sistemari-Foru Kontratazioen Zentralari atxikitzeko hitzarmena onartzea.*

**HIRUGARRENA:**

*Alkatea behar bezala ahalmentzea, Udal honen izenean eta ordezkartzan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin dagokion hitzarmena sinatu dezan.*

**PREMIAZKO GAIAK:**

*Azaroaren 28ko 2568/1986 Erret Dekretu bidez onartutako Toki Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren Araudiko 91.4 artikulua betetze aldera, bilera honetako gai zerrendako puntuak aztertu eta galde-eskeekin hasi aurretik alkateak galdetu du ea talde politikoren batek baduen asuntorik presa dela eta Udalbatzarrari aurkezteko, deialdiarekin batera entregatu zen gai zerrendan ez egoteaz aparte galde-eskeetan sartzeko modukoa ere ez den gairen bat alegia.*

*Presidentziak puntu hau eguneko aztergai zerrendan sartzea proposatzen du. Ahoz batezko adostasunez, horrela erabakiz.*


**KUTXAN UDALBATZARREN ORDEZKARIA IZENDATZEKO ELKARTEA OSATZEKO PROPOSAMENA.-**

*Udalbatzen ordezkartzari dagozkion Kutxako Estatutu eta Araudiarekin bat etorriz, egiten da jarraiko*

**ERABAKI PROPOSAMENA:**

**BAKARRA:**

*Berastegiko udalerrri honek, Segura, Deba, Asteasu, Zestoa, Eskoriatza, Lazkao, Alegi, Legazpi, Zumaia, Tolosa eta Getariko udalerriekin ELKARTEA osatzea erabakitzen du, horiek ere hala erabaki dute eta.*



*Aho batezko adostasunez, horrela onartzen da.*

*Egoera honetan, 17:50 ordu direnean, Presidentziak batzarra amaitutzat jotzen du, akta hau egiten delarik, nik, idazkari honek, diodanez gertaturiko guztiaren islada zehatza dena. Fede ematen dut.*

*Berastegin, 2012ko urtarrilaren 25ean.*

*Udaleko idazkari-kontuhartzailea,*

*Maria Pilar Garmendia Miguel*